

## AIRE GARBIA HERRI EKIMENAREN BALORAZIOA

Hiri-hondakinak biltzeko edukiontziek aurrerantzean lurrazpikoak edo lurgainekoak izan behar duten jakiteko herri-galdeketa egin nahi du Lasarte-Oriako Udalak, eta otsailean galdeketa hori arautuko duten baldintzak onartzeko asmoa du, baita galdera bera ere.

Baldintza horiek eta galdera zehazu baino lehen, herritarron iradokizunak jasotzeko epe bat ireki du, urtarrilaren 30ean itxiko dena.

Beraz, oraindik epe barruan gaudela, Aire Garbia plataformak honako hauek iradoki edo adierazi nahi ditu:

1. **Lurrazpiko eta lurgaineko zaborrontzien arteko eztabaida guztiz faltsua da.** Izan ere, urteek eta udal teknikariek berek agerian utzi dutenez, lurrazpiko zaborrontziek inoiz abantaila “estetikorik” izan bazuten, laster galdu zuten eta aspaldi-aspalditik dira arazo-iturri agorrezina.

2. Lasarte-Oriak arazo bat du lurrazpiko zaborrontziekin, arazo latza, gainera, baina hori ez da Lasarte-Oriak hondakinekin duen arazo nagusia edo **ARAZOA**. **ARAZOA da Lasarte-Oriak jarraitzen duela Gipuzkoan azken putz izaten birziklatze-kontuetan.** Izan ere, San Marko Mankomunitatean, Donostiako emaitzak bakarrik dira Lasarte-Oriakoak baino kaskarragoak. Donostia birziklatze-kontuetan desastre hutsa dela ezagututa, atera kontuak.

Jarraian, bi puntuok banaka jorratuko ditugu.

### 1. LURRAZPIKO EDO LUR GAINEKO ZABORRONTZIAK? EZTABAIDA FALTSUA

2017ko urrian, udal teknikariek aurkeztu zuten Alkatetzak berak lurrazpiko zaborrontziei buruz eskatutako txosten bat. Txostenak berretsi zuen aspalditik herritar guztien ahotan zegoena: lurrazpiko zaborrontziak desastre hutsa dira:

- Gehienbat arazo estetikoengatik ezarri ziren, baina, denboraren poderioz (txostenetik hitzez hitz kopiatzen dugu), **“el impacto visual negativo puede ser incluso mayor”**.

- **Arratoi-habi dira.** Berrero kopiatzen dugu hitzez hitz: **“[Arratoiek bertan aurkitzen dute] cantidades ingentes de alimento para permitir no solo su supervivencia, sino su expansión. De hecho, se ha tenido que llegar a efectuar un tratamiento de desratización continuado**

(mensualmente se desratizan la mitad de los contenedores del municipio) para intentar controlar la plaga, y estos productos no son inocuos”.

- Lasarte-Orian maila freatikoa lurrazaletik oso gertu dagoenez, lurrazpiko zaborrontziak **sarri baino sarriago urez betetzen dira**. Horren ondorioz, batetik, **kutsadura** sortzen da (zaborren lixibiatuak eta zaborrontziak altxatzeko sistema hidraulikoaren olioak); bestetik, berriz, ekipoak **erraz aberiatzen dira, zerbitzuaren kaltetan**. Are gehiago: “queda patente el avanzado estado de deterioro de las instalaciones”.

- Lurrazpiko zaborrontziek zabor-bilketaren **zerbitzua zaildu eta, ondorioz, garestitzen dute**. Hori FCCk aitortzen du, hau da, zerbitzua egiten duen enpresak berak: “Elevados costes de mantenimiento, mayores tiempos de vaciado (por elevación de plataforma), abundancia de complejas averías y paradas no programadas, complejidad de la estructura (bombas de achique, mandos a distancia elevadores, latiguillos, tijeras, etc), **necesidad de equipos específicos de limpieza en espacios confinados, mayor riesgo laboral, problemas de admisión de bolsas con la boca de los buzones, etc.**”

- Eta, gainera, lurrazpiko zaborrontzietan oinarritutako sistemak **“no ayuda a la separación de las distintas fracciones de residuos”**, birziklatzea zailtzen du, alegia. Jarrai dezagun txostena irakurtzen: “No debemos olvidar que los principales objetivos de la gestión de residuos son la reducción, el reciclaje y la reutilización, y que para ello es fundamental la contribución ciudadana, pero **difícilmente la ciudadanía puede ver un problema si se lo escondemos, y eso es precisamente lo que se consigue con la implantación masiva de este tipo de contenedores [lurrazpikoak]. El hecho de no percibir un problema no ayuda a la separación de las distintas fracciones de residuos**, y es un hecho que la comodidad suele prevalecer frente a otras cuestiones”.

Hau guztia ez dugu guk asmatu. Hau guztia Udaletxeko eta FCCko teknikariek idatziz adierazi zuten 2017ko urrian.

Baina orain arte esandakoa ez da guztia, honako hauek ere kontuan izan behar baitira:

- Egia esan, lurrazpiko edukiontziak jota daude. Gure kalkuluen arabera, gaur egun ia erdiak zerbitzutik kanpo daude. Baina demagun konpontzen dituztela eta hemendik aurrera egiten direla orain arte egin ez diren mantenu-lanak. Zaila da sinesten, baina tira. Baina kasu horretan ere, alegia, kasurik onenean ere, lurrazpiko zaborrontziek sakoneko beste arazo bat dute: **diseinatuta daude gaur egungo beharrak kontuan izan gabe**.

Izan ere, gehienak binaka jarrita daude, eta errefusa (edo, hobeto esan, zaborra nahastuta) biltzeko diseinatu zituzten. Gaikako bilketak aurrera egin duenez, binaka jarritako lurrazpiko edukiontzi horiek nahitaez osatu egin behar dira botilak, plastikoak, paperak, organikoa, olioia eta arropak biltzeko lurgaineko edukiontziekin. Hau da, **lurrazpiko edukiontzi guztiak puntu-puntu jarrita ere, kontua ez da lurrazpikoak edo lurgainekoak, baizik eta guztiak lurgainekoak, batetik, edo, bestetik, lurrazpikoak eta lurgainekoak nahastuta. Alegia, lurgainekoak ez ditugu inolaz ere begi-bistatik galduko, eta, ondorioz, lurrazpikoen ustezko abantaila bakarra, estetikoa, ezerezean edo ia ezerezean geratuko da.**

## **2. LASARTE-ORIAK JARRAITZEN DU AZKEN PUTZ IZATEN BIRZIKLATZE-KONTUETAN**

Lasarte-Oriak arazo bat du lurrazpiko zaborrontziekin, arazo latza, gainera, baina hori ez da Lasarte-Oriak hondakinekin duen arazo nagusia edo ARAZOA. ARAZOA da Lasarte-Oriak jarraitzen duela Gipuzkoan azken putz izaten birziklatze-kontuetan. Izan ere, San Marko Mankomunitatean, Donostiako emaitzak bakarrik dira Lasarte-Oriakoak baino kaskarragoak, eta hori asko esatea da, batez ere Donostia alor honetan desastre hutsa dela kontuan izanik. Hona hemen San Marko Mankomunitatearen 2018ko datuak udalerrika:

<b>Udalerria Municipio</b>	<b>Gaikako bilketa (%) Recogida selectiva (%)</b>
Astigarraga	76,56
Donostia	40,38
Errenteria	60,22
Hernani	76,77
<b>Lasarte-Oria</b>	<b>46,63</b>
Lezo	71,16
Oiartzun	74,29
Pasaia	54,35
Urnieta	70,42
Usurbil	82,57
<b>Batez bestekoa/Media</b>	<b>49,26</b>

Hona hemen, berriz, 2018ko datuak mankomunitateka:

Debagoiena	77,68
Debabarrena	51,37
San Marko	49,26
Sasietea	74,17
Tolosaldea	65,44,8
Txingudi	51,17
Urola-Kosta	64,95,2
Urola Erdia	66,59
<b>Gipuzkoako batz bestekoa/Media</b>	<b>56,90</b>

2019ko datu ofizialik oraindik ez dugu, baina, Lasarte-Oriari dagokionez, behintzat, ez dira oso-oso desberdinak izango.

Hau da, Lasarte-Oria Gipuzkoako babaztestekoaren azpitik ez ezik San Markoko batzbestekoaren azpitik ere badago. Eta San Marko da Gipuzkoan gutxien birziklatzen duen mankomunitatea, hain justu, Donostiako eta (neurri apalago batean, noski) Lasarte-Oriako emaitza kaskarren ondorioz,

Eta Lasarte-Oriak zergatik birziklatzen du hain gutxi? Bada, Udalak sistemarik kaskarrena ezartzea erabaki zuelako. Argi eta garbi.

Gauzak horrela, 2018ko otsailean, Aire Garbiak honako hau adierazi zuen:

*“Lasarte-Oriako Udalak ezin du bere erantzukizunari muzin egiten jarraitu, eta, behingoz, gaikako bilketa eraginkorra ahalbidetuko duen sistema ezarri egin behar du.*

*Egia esan, birziklatzearekin zerikusia duten gauzak alde batera utzita ere, Lasarte-Oriako Udalak badu nahikoa lan zaborra biltzeko sistemarekin. Izan ere, iaz lurpeko edukiontziei buruz enkargatu zituen txostenek berretsi dute herritar guztion ahotan zegoena: lurpeko edukiontzien egoera tamalgarria da, eta, berandu baino lehen, lur gaineko edukiontziekin ordezkatu behar dira.*

***Alegia, oraingo sisteman aldaketa sakonak egin behar dira, eta epe laburrean, gainera. Gauzak horrela, gure ustez, Udalak aukera aparta du beharra bertute bihurtzeko eta zaborren % 60 gaika biltzea ahalbidetuko duen sistema ezartzeko, % 60 baita leku guztietan gutxienekoa kontsideratzen den tasa.***

*Ez da zerbait utopikoa. Zaila ere ez da. Izan ere, Gipuzkoako udalerrri askok eta askok dagoeneko lortu dute. Halaber, hori lortzeko eredu bakarra ere ez dago. Hainbat daude, herri bakoitzaren berezitasunetara zeharo egokitu daitezkeenak. Gainera, **fundamentuzko parte-hartze***

*prozesu batek soluzioak doitzen eta batez ere sistema berria sozializatzen lagundu lezake, dudarik gabe.*

*Baina horretarako funtsezko zerbait aldatu behar da: orain arte, 'Lasarte-Oria birziklatzearen alde' propagandako eslogana baino ez da izan; hemendik aurrera, berriz, Udalaren bene-benetako borondatearen isla izan beharko luke''.*

Aire Garbiak adierazpen hori egin eta ia bi urte geroago, Udalak parte hartze-prozesu bat abiatu du, bai, baina zertarako?, herritarrek lurrazpiko eta lurgaineko edukiontziak nahastuta edo lurgainekoak soilik nahi dituzten jakiteko? Barkatu, baina iruditzen zaigu itxura baino ez duela egin nahi. Egingo balu bezala, baina benetako arazoa konpontzeko bidean, birziklatzearen bidean, alegia, aurrerapauso bat bera ere eman gabe. Ematen du ezinbestekoa –sinetsita gaude gaikako bilketa % 60ra iristea ahalbidetuko duen sistema ezartzea denbora-kontua baino ez dela– ahal den gehien atzeratu nahi duela. Ematen du benetako arazoari heltzeko inguru- minguruetan baino ez dabilela.

Udalak iradokizunak egiteko ireki duen epe honetan, herri-galdeketa arautuko duten baldintzak ez ezik galdera-proposamenak ere onartzen ditu. Bada, hona hemen gure galdera, baina ez dago herritarrei zuzendua, Udalari berari baizik:

**Noizko gaikako bilketa gutxienez % 60ra iristea ahalbidetuko duen sistema?**

**AIRE GARBIA**

## GALDEKETARAKO PROPOSAMENA

Aurreko guztia esan eta gero, Lasarte-Oriako Udalak planteatzen duen edukiontziei buruzko herri-kontsultan, ondoko galdera bikoitza egitea proposatzen dugu:

1) Kontuan izanik inguruko herrietan (Urnieta, Usurbil, Astigarraga eta Hernani...) birziklatze tasa %60tik gorakoa dela, Lasarte-Oriako Udalaren Zabor Bilketarako araudiak jaso beharko du %60eko birziklatze tasa lortzea 2021eko urtarrilerako?

BAI / EZ / EZ DAKIT

2) Hondakinak jasotzeko modua dagokionez, ein aukera iruditzen zaizu egokiena:

A. **Lurpeko edukiontzi guztiak ixtea.** Udalak, gehienez, 457.380 €ko kostua izango du lurpeko guztiak ixteagatik. San Marko Mankomunitateak lurgaineko edukiontziak modu progresiboan jarriko ditu, aurrera begirako beste gastu gehigarririk sortu gabe Udalarentzat.

B. **Lurpeko edukiontziak goitik behera berritzea.** Udalak 353.973 €ko kostua izango du berritze eta lehenengo urteko mantenuagatik. Bigarren urtetik aurrera, mantenu-kostea 147.813€koa litzatekeela Udalarentzat.

A / B / EZ DAKIT